

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

379 zb.  
www.getxo.eus

>> 2023ko ekaina

# ZG



Bilboko **LGTBIQ+**  
20. Nazioarteko  
Zinema eta  
Arte Eszenikoen  
Jaialdia  
06-26/07-01

# HE



20º Festival  
Internacional de Cine  
y Artes escénicas  
**LGTBIQ+**  
de Bilbao  
26-06/01-07



# DA

# PE

20th Bilbao International  
**LGTBIQ+** Film  
and Performing Arts  
Festival  
26-06/01-07

# NA



Antolatzailea  
Organiza

**ASOCIACIÓN  
ZINEGOAK  
ELKARTEA**

Babesleak  
Patrocinadores



Laguntzaileak  
Colaboradores

Laguntzaileak  
Colaboradores



FILMIN

# GETXO

## EKAINAK

## 16-23-25

## DE JUNIO

## IRAILAK 13

## DE SEPTIEMBRE

[www.zinegoak.com](http://www.zinegoak.com)

# Beharpenak Interrailean eta estatutik trenez edo autobusez bidaiatzen duten gazteentzat

Udan gazteek Interrail europarraren %50eko beharpena izango dute, eta %90erainoko deskontuak estatutik trenez edo autobusez bidaiatzen dutenentzat. Abantaila horiek eskuratu ahal izango dituzte 1993 eta 2005 urteen artean jaiotako pertsonek, hau da, ekainaren 15etik irailaren 15era bidaiatzeko txartelak erosten dituzten 18 eta 30 urte bitarteko gazteek. Horretarako, Garraio Ministerioaren webgunean erregistratu beharko dira lehen erosketa egin aurretik. Idazio hau interakoa, hori ez zegoen indarrean. Deskontuak txartel sinpletan zein joan-etorrikoetan aplikatuko dira, eta aukeratzen den garraio motaren arabera izango dira.

Ohiko distantzia ertaineko trenetan %90ekoa izango da, eta Avanta-koetan, %50ekoa. Abiadura handiko zerbitzuetarako (AVE, Avlo, Ouigo eta Iryo), deskontu txartelaren prezioaren %50ekoa izango da, baina gehienez 30 € billeteko, horrek dakarren mugarekin. Estatuaren eskumeneko autobus erregularreko zerbitzuetan, deskontuak txartelaren prezioaren %90erainokoak izango dira. Interrail txartelari dagokionez, Europar Batasunetik bidaiatzeko %50eko deskontua egingo da, betiere Renferen bidez merkaturatzen bada.



## BEKA SARIAK

**\*Ozeanoei buruzko kontzientziario lehiaketa: Klimaren heroiak ekainean.** Bow Seatek deituta, gazteak Agenda 2030eko inguruneko helburuak lortzeko lanean gazteak inplikatzeko. Klima-heroi bat (benetako pertsona bat) aurkeztu beharko dute, agian lan ezegunarekin, baina ezagutu beharrezkoarekin. Aurkezpenak hurrengoetan egin ahal izango dira: ikusizko artea, poesia eta ahozko hitza, idazketa sortzailea, pelikula, arte eszenikoak... Sari desberdinak izango dira junior eta senior mailerarako. Lanak ekainaren 13ra arte aurkeztu ahal izango dira. <https://labur.eus/VMyywN>

**“Universo Goya” III. Komiki Lehiaketa.** Ibercaja Fundazioko Goya Museoak deituta, 18 eta 30 urte bitarteko artean Aragoiko pintorearen ibilbidea eta lana ezagutzea sustatze aldera. Gaia eta teknika libreak dira, baina ardatza Goyaren bizitza eta ibilbide artistikoa. Sariak: obra irabazleak eskuratzeko (lehenentzat 1.500 euro eta bigarrenentzat 1.000 euro) eta komikiaren edizioa. Lanak aurkezteko epea ekainaren 23an amaituko da. <https://labur.eus/mSRKq>

## Romoko Gaztelekuaren programazioa Ekaina

**Hilak 1, osteguna:** ASANBLADA: UZTAILEKO PROGRAMAZIOA  
**Hilak 2, ostirala, 3, larunbata, eta 4, igandea:** EKINTZA: TXIKIFEST  
**Hilak 7 eta 14, asteazkenak:** TAILERRA: ANTZERKIA: TAUPADA  
**Hilak 8, osteguna:** TXAPELKETA: JUST DANCE  
**Hilak 9, ostirala:** ESKULANA: KUBO AMAIGABEA  
**Hilak 11, igandea:** SUKALDARITZA: TALOA  
**Hilak 16, ostirala:** TAILERRA: ZINEGOAK  
**Hilak 18, igandea:** IRTEERA: GETXOKO MUNDUKO ARROZAK  
**Hilak 20, asteartea:** TXAPELKETA: MAHAI-JOKOAK  
**Hilak 23, ostirala:** ESKULANA: HILORAMA  
**Hilak 24, larunbata:** IRTEERA: BIZKAIA ZUBIA  
**Hilak 25, igandea:** SUKALDARITZA: IRABIARIAK  
**Hilak 28, asteazkena:** IRTEERA: IGERILEKUAK  
**Hilak 30, ostirala:** IRTEERA: PLAYA

## Algortako Gaztelekuaren programazioa Ekaina

**Hilak 1, osteguna:** ASANBLADA  
**Hilak 4, igandea:** SMASH BROS TXAPELKETA  
**Hilak 6, asteartea:** XAKE TXAPELKETA  
**Hilak 8, osteguna:** HAURREN ESKUBIDEEN EGUNA  
**Hilak 9, ostirala; 10, larunbata, eta 11, igandea:** TXIKIFEST  
**Hilak 14, asteazkena:** JUST DANCE  
**Hilak 15, osteguna:** HANBURGESAK  
**Hilak 16, ostirala:** MOTXILA PERTSONALIZATUAK  
**Hilak 18, igandea:** IRTEERA: MUNDUKO ARROZAK  
**Hilak 20, asteartea:** IRTEERA: FIFA TXAPELKETA  
**Hilak 23, ostirala:** IRTEERA: ZINEGOAK  
**Hilak 24, larunbata:** IRTEERA: BIZKAIA ZUBIA  
**Hilak 28, asteazkena:** IRTEERA: IGERILEKUA  
**Hilak 30, ostirala:** IRTEERA: HONDARTZA



“Casa Susanna” dokumentalaren eszena

## Ekainaren 16, 23 eta 25ean eta irailaren 13an egingo dira Zinegoak Jaialdia dela eta, hainbat jarduera

Gaylesbotrans-Zinegoak Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiaren Getxoko hedapenak, aurten, proiektioez gain, hainbat jarduera aurreikusten ditu Udaleko Gazteria Zerbitzuaren eskutik.



Susy Shock

etorkizuneko zailtasunei aurre egingo diete elkarrekin.

Proiektio eta tailer bera egingo da ostiralean, hilak 23, ordu berean, oraingo honetan Algortako Gaztelekuaren (izen-emateak 688 84 03 56 telefonoan). Gainera, 19:00etan, Romo Kultur Etxea-RKEK Sébastien Lifshitzen *Casa Susanna* dokumentala eskainiko du, ingelesezko jatorrizko bertsiotan, gaztelaniazko azpitu-luekin.

**“Casa Susanna”ren sinopsia**  
 50eko eta 60ko hamarkadetan, Estatu Batuetako landazabalarren sakonenean, Catskills mendien magalean zegoen egurrezko etxe bat, atzean aletegi bat ere bazuen, trabestien lehen sare klandestinoaren egoitza izan zen. Dianek eta Katek 80 urte dituz-

te orain. Bere garaian, gizonak ziren, eta baita erakunde sekretu haren parte ere. Gaur egun, trans nortasunaren lehen egunetako oinarritzko kapitulu ahaztu hau kontatzen digute.

Jarduerak aurrera egingo dute igandean, hilak 25, Inés Bermejo eta Julen Nafarrete getxotarren *Gu ere bagara* proiektua oinarri hartuta *Gure Garaian* antzerki lanarekin, RKEEn, 18:30ean, euskaraz eta gaztelaniaz, amamen eta aititeen istorioak ikusarazteko asmoz, homosexuala, bisexuala, transexuala... izatea legez kanpoko zen garai batean.

Ekitaldien egitaraua Susy Shocken tailer, hitzaldi eta saio musikal batek itxiko du, irailaren 13an, asteazkena, 19:00etan, Romo Kultur Etxean.

**Susy Shock**  
 Susy Shockek trans sudaka artista gisa definitzen du bere burua, idazlea, poeta, kantaria, aktorea eta irakaslea da, Argentinan eta Latinoamerikan erreferentzia da bere “artibismo” agatik. Ibilbide luzea du, 40 urte agertokietan, eta sei liburu eta bi disko musikal argitaratu ditu modu independentean.

## Gazteentzako errekurtsio gida

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, gazteei zuzendutako errekurtsio gida bat egin du (<https://egk.eus/eu/argitalpenak/errekurtsio-gida/>).


Dokumentuak hainbat erakunde, elkarte, talde eta fundazioen arteko harremanak estutu nahi ditu, horiek gazteengana iritsi ahal izan daitezen. Helburua da Bizkaiko gazteen partaidetza eta inplikazio soziala sustatzea, haien parte-hartzea erraztea eta pixkanaka sareak eta kohesio handiagoa sortzea. Gida foru erakundearen eta EGKren webguneetan dago eskuragarri. Informazio gehiago:

## GAZTEEN LEIHOA

Bizkaiko aukera eta errekurtsioak arakatzeko gida

*Eta zu, gazte, partaidetzaren leihoa zabaltzeko prest?*

01 OSASUNA 02 KIROLA 03 GIZARTE PARTAIDETZA 04 ANIZTASUNA



[hezkontza@egk.eus](mailto:hezkontza@egk.eus), [partehartze@egk.eus](mailto:partehartze@egk.eus) eta telefonoetan:

688 737 133 / 944 436 143 eta 688 676 099 / 945 220 601.